

PENANJAKAN-BROMO-SEMERU

HIRU EGUN HIRU SUMENDI

XV. mendean Islama Javaren ekialderantz zabaldu zenean, uharteko apaiz, errege eta aristokrata hinduistek Balira ihes egin zuten, bere kultura, sinesmen eta erlijioarekin batera. Aldiz, nekazari eta jende xumeak Java uhartearen ekialdeko Tengger mendietako Gunung Semeru eta Gunung Bromo sumendien orroan eta erupzioetan aurkitu zuen babesa. Islamiarren eta indar geologikoen presioa izan arren, tenggertarrek beren hizkera, ohitura eta sinesmenei eusten diete oraindik, Buda Mahayana izeneko hinduismo-animismo nahaste berezia praktikatuz eta lur bolkaniko emankorrak landuz. Tenggertarren lurralde menditsuak Bromo-Tengger-Semeru Parke Nazionala osatzen du gaur egun, bertako hiru sumendi nagusien ohoretan. Paisaia paregabea, munduan bakana: Bromo sumendiari (2329 m) 16 km-ko galdara erraldoi eta antzuaren baitan, kea dario etengabe. Semeru (3676 m) Javako sumendirik garaiena eta aktiboenetakoa da. Penanjakan (2770 m) sumendi ohiaren gailurretik paisaia bolkaniko honen ikuspegi miresgarriaz goza daiteke.



Tengger biztanleak hinduistak dira eta gehienak nekazariak, lur bolkanikoa oso emankorra baita.

Goizaldeko 3:00retan hasi dugu Indonesiako Java uhartean zeharkaldi berria. Hiru egun hiru sumendi da gure xedea: Penanjakan (2770 m), Bromo (2329 m) eta Semeru (3676 m). Ilunpean, kopeta-argiarekin baino ez, aharrausika egin ditugu hasierako metroak. Aurreko asteetako abenturak Papuako danien eta Sulawesiko torajatarren eskualdean, oraindik ahaztu gabe ditugu eta atzoko bidaia luzearen ostean, behar beste atseden hartu gabe goaz. Sulawesi 7 orduko (320 km) auto bidaia egin genuen

Makassar hiribururaino. Ondoren, hegaldia Javako Surabaya hiriraino, eta berriz atoz beste ordu mordo bat (120 km) Cemoro Lawang herriraino (2214 m), hamaika uste-kabe gertatu ondoren: autoaren matxurak, eta iruzur ahaleginak, besteak beste. Lonely Planet gidaliburuan ohartarazten den legez, auto gidari batzuk erdibideko Bromo Home Stay hotelaren atarian uzten dituzte turistak, Bromo sumenditik gertu daudela sinestaraiz. Gezurra galanta. Eskerrak eskarmentu handiko bidaiariak garela jada eta laster utzi

zion autogidari alproja hark gu tronpatzeko ahaleginari. Horregatik Mikel eta Belen lo geratu dira eta Iratxe bakarrik dator gurekin.

PENANJAKAN (2770 M)

Gauaren bakardadean bide asfaltatuari jarraikiz egin ditugu hiru bat kilometro ipar-mendebalderantz, galdara erraldoiaren ertzean eta tenggertarren baserri eta lursailen ondoan. Ondoren, mendi-bidea bilakatu da eta tarteka eskailerak aurkitu ditugu le-

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mila Gallastegi
Gerrikabeitia

(Eibar, 1972)

Asier Aranzabal
Maiztegi

(Eibar, 1971)

Eibarren jaio eta hazi arren, gaur egun Amorebieta-Etxanon bizi dira. Munduan zehar hainbat bidaia egin dituzte, natura eta kultura elkartzeko gizakiok ezagutzen dugun modurik sinpleena medio, hots, OINEZ, edota bertako berezko garraiobideak erabiliz: kanoan, zaldiz... Honela, Nepalen, Perun, Marokon, Etiopian, Mongolian, Indonesian, Aljeriako eta Tunisiako Saharan, Iranen, Malin, Islandian, Groenlandian, eta Kaxmir eta Ladakhen izan dira besteak beste. Bidaiatzeko filosofia honi esker, paisaia ikusgarriak eta bertako biztanleak nahiz beraien kultura hurbilagotik ezagutu ahal izan dute, eta bertan jasotako irudi eta esperientziekin ikus-entzunezkoak eskaintzen dituzte. Gaur, bi alaba dituzte eta mendi eta bidaia giroan haiek hezitzen hasiak dira. asiermila@gmail.com

Semerun, erupzioak leherkorak dira geruza-sumendia delako. Laba gogortuaren, piroklastoren eta errauts bolkanikoaren txandakako geruza ugari eraturik dagoen kono formako sumendia da.





Egusentiko ikusmira Peninjakan gailurretik. Bromok kea dario ezkeraldean eta Batokek laranja zukugailu erraldoi baten itxura du.

hen behatokira iritsi aurretik. Aldaparen erdia baino ez dugu igo oraindik. Gaua da eta izarrak baino ez ditugu ikusten eta gure arnasestua besterik ez dugu entzuten. Peninjakan sumendi itzaliaren tontorrerantz goaz. Bromo eta beste lau sumendi biltzen dituen Tengger galdara erraldoiaren kanpoan, iparraldean alegia, dago kokatua sumendi ohi hau. Beste 30 minutuz goraka egin ondoren, mendi bidea utzi eta auto errepidearekin bat egin dugu. Hau ezustekoa! Ehunka jeep doaz turistaz beteta mendiaren beste isurialdetik gailurreko behatokira, gu bezala egusentiarren ikuspegiak zoratzera. Urduritasunak hartuta, behatokian guretzat lekuri geldituko ez ote den beldur, martxa azkartu dugu azkenengo kilometroan. Jendetza handia da. Ondorioz, behatokian leku on bat aurkitzeko itxaropena galdu dugu. Eskerrak gehienak behatokiaren ekialdera begira jarri direla,

eguzkia agertzen den lekura hain zuen. Hegoaldeko ikusmira da guri interesatzen zaiguna eta oraindik lekuri bada lehenengo ilaran. Azkar baten tripodera jarri, gainean argazki kamera lotu eta zain egon gara, eguzkiaren lehen izpiekin itzal eta koloreen ikuskizuna hasi den arte. Kliskatu eta kliskatu, ikuskizun aldakor honen une oro jaso gura dugu. Baina beti flashik gabe, profesionalen gisa, albaon ditugun turista gehienak ez bezala. Ez dira ohartzen flasha ez dela gai horren urruti dagoen paisaia argitzeko. Poliki-poliki dozena erdi sumendiren silueta galdara erraldoiaren barnean ikusgai egin dira. Bromori kea dario etengabe. Ustekabean urrutiko Semeru handiak orro egin eta izugarrizko ke zutabea kanporatu du, goizean goizetik "egunon" esan nahi balu gisa. Pozak zorutzen gaude hemen bildu garen turista guztiak.

Eguzkiaren lehen izpiekin itzal eta koloreen ikuskizuna hasten da

Azkenik, argiak ametsezko paisaia honen zehaztasun guztiak erakutsi dizkigu, eta hiru egunetan Semeru sumendiaren gailurreraino jarraitu behar dugun bidea oso osorik ikus dezakegu. Kafetxo bat hartu eta beherantz jo dugu etorritako bidetik. Bidean behatoki bat baino gehiago daudela ohartu gara, bakarrik erabat eta gailurrekoak bezain ikusmira ederrarekin. Sumendien paisaia hau hain da hunkigarria, ezin diogula argazkiak ateratzeari eutsi. Beherago, gauean ikusi ezin izan ditugun tenggertarren baserri eta ortuak ikus ditzakegu orain. Hain dira emankorrak lur bolkaniko hauek, non tenggertarren %80a nekazariak baitira, egunean 2,5-5,5 € irabazteko



16 km-ko erradioa duen Tengger galdara zeharkatu behar da Bromora heltzeko. Ingurunea zeharo hunkigarria da, batez ere kraterraren itxura antzuagatik.

gai direlarik. Patata, aza eta tipulak dira barazki arruntak. Baina gaur egun turismoak gero eta indar gehiago du, beraien lurraldearen edertasuna lau-haizetara zabaldu baita.

men, bitxikeria gu garela argi geratu da. Mendebaldeko turista gutxi dabil inguru hauetan, eta are gutxiago gureak bezalako motxila astunekin. Ez gaude horrelakoetara ohituta eta

BROMO (2329 M)

7:30ean hotelera heldu eta beste edozerretan hasi aurretik, ondo gosaltzea erabaki dugu Mikel eta Belenekin. Ondoren, motxilak berregin ditugu, lo zakua, esterila, kanpadenda eta jatekoa sartu eta 10:30ean ekin diogu berriz martxari. Kale artean Tengger galdararen ertzean dagoen behatokira heldu gara. Ustekabean, hainbat indonesiar turistek inguratu gaituzte eta milaka erretratu egin digute. He-



Bromo gailurrean bizpahiru argazki atera eta jendetza atzean utziz kraterraren ertzetik Semerurantz erabat bakarrik goaz, inor ez baita ausartzen lurrin sulfhidrikoak tarteka estaltzen duen bide honetatik ibiltzen.





Tengger galdararen barruko sumendien eta baita Semeruren ikuspegia Penanjakan gailurretik.



halako baten egoera nekagarria egin zaigu. Baina ez dugu aurpegi luzerik jarri, guk geuk ere hainbat erretratu atera baitiegu bidaian zehar aurkitu ditugun daniei eta torajatarrei, eta inork ez digu sudurrik zimurtu.

Argazki saioa bukatu ondoren, antzinako Tengger sumendiak utzitako galdara erraldoiaren hondar bolkanikora jaitsi gara (2000 m). 16 km-ko erradioa duen galdara zahar honen erdigunean kono berriak sortu ziren, eta horietatik Bromo da aktibo jarraitzen duen sumendi bakarra. Ingurunea zeharo hunkigarria da, batez ere krateraren itxura antzua eta berori inguratzen duen haranaren landaretza joria alduz gero. Horregatik datoz urtero 500.000 turista Bromo sumendia ikustera, gehienak indonesiarrek. Gizon eta emakume, zahar eta gazte, lodi eta mehe, guztiek sumendiaren ahotik bere arnasa ikusteko, porlanezko

KASADA JAIALDIA

Tengger biztanleek Roro Anteng erregrinaren ("Teng-") eta Joko Seger ("-ger") erregearen ondoren goak direla uste dute. Bikote gazte honek oinordekorik ezin izan eta Bromo sumendiaren barruetan bizi den Jainkoari laguntza eskatu zioten. Honek 25 seme-alaba eman zizkien, baina semerik gazteena, Dian Kesuma, berarentzat sakrifikatzea eskatu zuen sumendiaren aho barrura jaurtikiz. Harrez geroztik, sakrifizio hau oroitzen dute urtero Kasada jaialdian. Tengger egutegiaren Kasada hilabetearen hamalagarren egunean milaka biztanlek igotzen dute Bromoren kratererraino goizaldean. Hyang Widi Wasa mendiko jainkoari bedeinkazioa eskatuz loreak, fruituak, barazkiak, oiloak eta baita bufaloak ere botatzen dituzte sumendiaren krateraren barrura.



Ranu Paniko oihanean zuhaitzak erraldoiak dira eta landareta neurritz gabekoa. Oihaneko zarata kopurua era demasa da.

265 eskailera eraiki dira kraterraren ertzearaino. Hori da egin ohi duten ahalegin osoa, kraterraren oinarriaraino jeep-ez edo zaldiz etortzen baitira. Galdara zaharraren errautsak eta hondarra zapaltzen dituzten bakarrak gu gara. Benetan astronautak ematen dugu.

Bromo da aktibo jarraitzen duen sumendi bakarra

Batok mendia (2440 m) laranja zukugailu erraldoi baten itxurarekin igoeraren eskuinaldean daukagu eta ari so goaz. Aspaldi itzali zen sumendia denez, bere magala casuarina-

ren landaretzak estaltzen du. Espero genuen bezala, Bromoren gailurra jendez gainezka dago goizeko 11:30ean. Bizpahiru argazki atera eta kraterraren ertzetik jo dugu hegoalderantz, Semeru handia gailentzen den norabidean hain zuzen. Orain erabat bakarrik goaz, inor ez baita ausartzen kraterraren lapikoari etengabe darion lurrin sulfidrikoaren artean ibiltzen. Ez da txantxa, arnasa hartzea ez baita erraza. Asierri adibidez asma sorrarazi dio eta ordu-erdi bat kostatu zaio birikiak berriz irekitzea. 700 bat metro egin ondoren, galdara berria agertu zaigu eskuinaldera. Kursi (2581 m), Watangan (2601 m) eta Widodaren (2614 m) sumendi ohiek sorturiko galdara erraldoia

da. Kraterraren ertzetik hegoalderantz jarraitu dugu, baina oraingoan belartza gerriraino heltzen zaigu eta ondorioz bidea guk egin behar izan dugu Kursi mendiaren tontorreraino (13:00). Atsedena hartzen eta mokadua jaten ari garela, Semeru erraldoiak berriz orro egin eta onddo itxurako ke zutabea kanporatu du, "on egin" esan nahi baligu gisa. Erabat sorgindu gaitu mendi honek. Erupzioak ordu-erdi gertatzen direla ikasi dugu. Hortaz, gailurra utzi aurretik tripodea jarri eta hurrengo erupzioari itxaron diogu argazki zaparrada batean sekuentzia osoa harrapatzeko asmoz.

Semerurantz joateko Kursi mendiaren ertzetik Tengger galdara erraldoiaren hondar



Cemoro Kandang izeneko baso honetan, pinurik ez dago, casuarina izeneko bertako zuhaitz koniferoa baizik.

bolkanikora jaitsi behar dugu (2000 m) eta ondoren, haren kraterraren hegoaldeko ertzera igo (2450 m). Baina ez dakigu nondik jaitsi, bidezidorrik ez baitugu aurkitzen. Belenek aurrea hartu du eta landaretza erraldoi eta arantza artean bere atzetik joan gara besteok kexaka. Bertan dagoela dirudi, baina ia ordubete pa-

satxo kosta zaigu galdararaino jaitea (15:00). Orain zer? Benetan ausartak gara; maparik gabe gatoz, Lonely Planet gidaliburuko krokisa txiki batekin eta bart gaueko hoteleko jabearen oharrekin soilik. Eskerrak Semeru edonondik ikus daitekeela, galdararen zati honetan ezik. Behintzat, hegoaldean dagoela badakigu; ha-

SEMERU (3676 M)


Javako uhartearen ekialdean, itsasertzeko lautadetatik zuzen altxatzen den sumendirik garaiena da Semeru. Aktiboenetakoa da. Erupzioak hogei minuturo gertatzen dira, kea eta errautsa, baita harriak ere, kraterraren gainetik 100-400 metro gorago jaurtikiz. Haizeari esker sorturiko laino pozoitsua laster sakabanatzen da eguratsean, bestelako kalterik eragin gabe. Baina Semeruk hamaika erupzio erraldoi izan ditu historian zehar. Erregistraturik dagoen lehendabizikoa 1818an gertatu zen eta harrez gero, 55 erupzio handi izan ditu gaur egun arte. Horrelakoetan, laba kanporatzeaz gain, isuri piroklastiko suntsigarria ere sortzen du, non gas eta harri beroez (1000 °C) osaturiko hodeiak lurra jo eta maldan behera isurtzen den 700 km/h-ko abiadurarekin, aurrean harrapatzen duen guztia suntsituz. 2012aren otsaila eta apirila artean gertatu zen azkenengoz fenomeno hau, isuriak hegoaldeko magalerantz joan zirelarik. 1967az geroztik bere aktibitatea jarraitua izan da, ikusi ditugun erupzioa leherkorrak etengabeak izanik. Guztira 400 hildako eragin ditu.

Erupzioak leherkorrak dira geruza-sumendia delako. Laba gogortuaren, piroklastoren eta errauts bolkanikoaren txandakako geruza ugari eraturik dagoen kono formako sumendia da. Mota honetako sumendiak denbora luzean zehar eraberritzen dira, aldiakako erupzioen metatzeaz. Laba kanporatze bidea oso estua izan ohi da, gasen eta labaren irteerari erresistentzia handituz. Ondorioz sumendi barruko presioa asko handitzen da erresistentzia hori gainditu aurretik, erupzio leherkorrak eraginez.

Beraz, mendi honetara igotzea arriskutsua da, batez ere, aktibitatea handia denean. Horregatik igotzea debekatzen dute sarritan. Aurrez informatzea derrigorrezkoa da.

Mahameru (= "mendi handia") izenez ere ezaguna den mendi honek, budisten eta hinduisten Meru edo Sumeru (= "jaikoen egoitza") mendi sakratuaren izenean du jatorria. Antzinako kondairak dioenez, Indiatik ekarri omen zen mendia Javara. Beste hinduista askok uste du Meru mendiak 109 gailur dituela, gailurrik handiena Tibeteko Kailash delarik. Semeru aldiz, Javako Shivaren egoitza izango litzateke.

rantz hasi gara mugitzen bide arrasto baten bila. Eureka! Aterpetxo batetik gora, landaretza artean, sigi-sagan doan xendra baten arrastoak antzeman ditugu. Beste ordu bat eta erdi eman dugu 450 metroko desnibela gainditzen (16:30). Jemplang izeneko ingurune honetan asfaltozko errepide batera heldu gara, eta seinale bati jarraikiz beste 6 kilometroan ibili gara errepidetik Ranu Pani herriraino (2100 m, 17:30). Leher eginda gatoz.



SEMERU (3676 M)

Ranu Pani aintziraren ondoko herrixka honetan mila bat nekazari bizi dira. Thomas eta Hanak bikotearen etxean egin dugu lo. Afalorduan, gailurretik datozen bi amerikanoekin solasean aritu gara eta igoera zaila eta arriskutsua iruditu zaiela adierazi digute. Eskarmentuko mendizaleak ote diren ez dakigunez, eta bestelako informaziorik gabe gatozenez, horrek kezkatu egin gaitu; gure helburua lor-

tzeko gai izango ote garen zalantzak agertu zaizkigu eta talde-hausnarketaren ondoren, John gidari lanetan hartzea erabaki dugu, eta bide batez motxilaren pisua apur bat arintzeko Hadi zamaketaria ere kontratatu dugu.

Zuhaitzak erraldoiak dira eta landaretza neurririk gabekoa

Egun argiz hasi dugun arren (8:30), behe-lainoak herri osoa estaltzen du. Lakuaren ondotik pasatu eta Lumajang herrira jaisten den errepidean egin dugu lehendabiziko kilometroa baratzean ondotik, parke nazionalaren kontrol guneraino. Semeru igotzeagatik zerga ordaindu behar izan dugu bertan (15\$ - 2015); pasaportearen fotokopia ere eskatu digute; osasun agiria ere erakutsi behar omen da, aldiz, ez digute horrelakorik eskatu; eskerrak. Errepi-



Erupzioak hogeit hamar minuturo gertatzen dira, kea eta errautsa, eta baita harriak ere, kraterraren gainetik 100-400 metro gorago jaurtikiz.

dearen eskuin aldera okertu dugu oihanean barneratzen den xendari jarraikiz. Basoaren handitasunak eta behe lainoaren ukitu misteriotsuak miretsi gaitu. Zuhaitzak erraldoiak dira eta landaretza neurririk gabekoa. Oihaneko zarata kopurua ere demasa da. Soinu-mazedonia horretan tximino talde bat antzeman eta ikusi ahal izan dugu zuhaitzen adarretan kulunkatzen; gorputza laranja kolorekoa eta aurpegia beltzarana dute. Baina ez dira orangutanak, txikiagoak baizik. 10 km ibili gara oihanean barrena 3 orduz (11:30) Ranu Kumbolo lakura heldu aurretik. Atsedean luzea hartu dugu (1 h) lakuaren eta inguruko paisaiatzat. Bertan bainatzea erakargarria den arren, bere ur ertzta tranpa bat da, Tarzan pelikulako harea-mugikorren modukoa delako.

Beste 300 m-ko desnibela igo dugu Kalimati izeneko kanpalekura heltzeko (2670 m). Baina oraingoan aldapak oihaneak baino handiagoak dira 4,5 km-ko tartean gainditu behar delako. Aldiz, oso paisaia aldakorra aurkitu dugu. Lehendabiziko aldapari (%18) Tanjakan Cinta deritzo. Lepoa gainditu eta Afrikako sabanaren itxura duen belardia aurkitu dugu. Oro-Oro Ombo izenez ezaguna, tussock izeneko sasitza da. Ondoren, beriz aldapari ekin diogu pinudi batean barrena. Cemoro Kandang izeneko baso honetan, pinurik ez dago, casuarina izeneko zuhaitz koniferoa baizik. John, gidariak, dioskunez oreinak, basurdeak, sugeak eta baita lehoiabarrak aurki daitezke baso hauetan. Basoaren irteeran (Jambangan) tussock eta edelweiss artean Semeru sumendiaren kono erraldoia aurrez aurre ikus dezakegu. Benetan ikusmira hunkigarria! Azkenik, beste ordu erdi ibili dugu Kalimatira heltzeko (14:45).

Kalimati belardi laua eta zabala da Semeruren konoaren oinarrian. Eratzun baten gisa basoak konoaren azpiko aldea inguratzen du, kanpalekutik hasi eta 3000 metroko garaiera arte. Gainontzekoa errauts hutsa da. Mamua aurrez aurre gure gainean daukagu orain. Beraz atsedeenaren aitzakiaz tripodera jarri eta hurrengo erupzioari itxaron diogu, oraingoan ere argazki zaparrada batean sekuentzia osoa harrapatzeko.

Mendizale askok gaua hemen pasatu ohi dute, gailurrari erasotzeko, aitzitik guk beste 200 m gorago igo nahi dugu Arcodopo izeneko lekuraino. Baina aurretik uraz hornitzea derigorrezkoa dugu, bai afarirako eta bai bihar goizerako. Igoera osoan iturri bakarra kanpalekuaren mendebaldean dago, kilometro bateko distantziara gutxi gorabehera.

Eguneko azken txanpan, bihar jasan behar dugunaren atarikoak sufritu dugu. Lurzorua

erabat ezegonkorra da, harea eta errautsa baino ez eta ondorioz begietatik, sudur-zuloetatik eta ahotik sartzen zaigu, pausu bakoitzean eskatzen duen lana bikoitza delarik. Baina ahaleginak merezi izan du, urrutiko sumendi baten atzean eguzki gorrixka sartzen ikusi ahal izan dugulako.

Urrutiko sumendi baten atzean eguzki gorrixka sartzen ikusi dugu

Goizaldeko 2:30ean ekin diogu azken erasoari, egunsentia gailurretik ikusteko asmoz. Baso eratzuna berehala gainditu eta kono biltzari eutsi diogu, bata bestearen atzean, John gidaria buru delarik. Oso ilun dago eta bidezidorrrik ez dago. Kopetako argiak izanda ere aurrekoaren oinak ozta-ozta ikus ditzakegu, haiek jasotako hauts lainoa dela eta. Baina hori ez da okerrera, aldapa baizik, desnibela %50ekoa baita. Johnek zuzen garamatza aldapa pikoan gora, sigi-saga bat ere egin gabe. Pausu bako-

tzean pausu erdi edo gehiago galtzen dugu gainera. Eta hori gutxi balitz, sumendiak jaurtitako harrietan, batez ere handienetan, jarri behar dugu arreta osoa, gure aurrekoak nahi gabe zapaldu eta gure oinaren gainera erori ez daitezen. Honela, zeru izartsuaz gozatzeko modurik ez dago. Sufrimendua noiz bukatuko ote den da gure pentsamendu bakarra. Bi ordu eta erdiko pairamena goizaldeko 5:00etan bukatu den arren, azken metroak infernua baino okerragoa izan dira, egunsentia aldapan harrapatuko gintuela beldur, martxa azkartu baitugu. Hala eta guztiz, apo apoan lortu dugu gure helburua, eguzkia 5:10ean aterata baita urrutiko zeruertzean, gu oraindik amasestuka. Goizaldeko lehen minutu hauetan, eguratsa hain da gabia, non eguzkiaren lehen izpiek itsutu egiten baikaituzte, eta beroni argazkia ateratzea ezinezko egiten baitzaigu.

Gailurraren eta egunsentiaren estasia pasatu ondoren, sumendiaren handitasunaz ohartzten hasi gara. Gailurra lautada handi bat da. Gu beronen iparraldeko ertzean gaudete eta kraterra 200 metrora dago hegoalde-

Semeruren Gailurretik ikuspegia egundokoa da. Hiru egun hauetan egindako ibilbide osoa dakusagu, urrutiko Penanjakanetik hasita.



rantz. Errautsa baino ez da ikusten, eta haren gainean harriak sakabanaturik. Kraterre hurbiltzeko tentazioari ezin eutsirik harantz abiatu garenean, eztanda beldurgarri batek zur eta lur utzi gaitu. Semeruren txanda izan da. Ke zutabea gainean dugu; ez gaitu estali, haizea gure alde dagoelako. Beldurgarriena harriak gori gorian ikustea izan da. Lekua benetan arriskutsua dela berehala konturatu gara. Johnen esanetan hainbat hildako izan dira hemen, harri horietako bat gainera erori zitzairenean. Baina lasai egoteko agindu digu, baldin eta gauden lekutik mugitzen ez bagara. Horrela beste hiru erupzio ikusi ditugu.

Gailurretik ikuspegia egundokoa da. Itsasoa eta urrutiagoko beste hainbat sumendiren silueta begi-sare umeletan ditugula, hiru egun hauetan egindako ibilbide osoa dakusagu, urrutiko Penanjakanetik hasita. Argi-distira anitz ikus daitezke haren gailurrean, gaur ere milaka turista bildu baitira egunsentiak eskaintzen duen ametszko paisaiatz liluratzera; gaurko turistak horiek ere ez dakite flasha erabiltzea alferrik dela!



Semeru erraldoia eta batez ere bere 20 minuturo kanporatzen duen ke zutabea ikusgai da ibilbide osoa, Oro – Oro Ombo izeneko leku honetan bezala.

DATU PRAKTIKOAK

NOLA JOAN

Bromotik hurbilen dagoen aireportua Surabaya hirian dago; bertara heltzeko hurbileko hegaldia aurkitu behar da Kuala Lumpurretik (Malaysia), Singapurretik, Jakartatik (Javako hiriburua) edo Balitik, aurrez Europako hiribururen batean eskala eginda. Bidaia honen kostua 1000 €-ren bueltan dago. Bi autobus behar dira Surabayatik Cemoro Lawang herriraino joateko: lehendabizikoa Surabayatik Probolinggoraino joateko 2-3 orduko iraupenaz; Aireportutik Bungurasih (edo Purabaya) izeneko autobus geltokira eta ondoren express Patas izeneko autobusa (2 € aire egokituarekin eta 1 € aire egokitu gabe), Probolinggotik Cemoro Lawangera mikrobusak dabilta eta ordu bat eta erdiko bidaia da gutxi gorabehera. Autobusak bete bezain azkar bata bestearen jarraian ateratzen dira. Batzuetan asko itxaron behar da (adibidez 2 ordu) eta beste batzuetan gutxi. Eserleku bakoitzagatik 2-3 € eskatu ohi dute, baina eserleku guztiak ez badira betetzen garestiago izan daiteke (autobus osoak 28-32 € balio du). Arratsaldetik aurrera, zaila da autobusa betetzea. Probolinggo inguruan adi ibili behar da iruzurti asko dabil eta! Aireportuan, taxia alokatzea ere posible da, bidaia azkarrago egin ahal izateko (35-45 €).

Wonokrono herritik ere igo daiteke Penanjakan mendira iparraldeko isurialdetik eta handik Cemoro Lawang herrira. Cemoro Lawangetik Ranu Panira, edo alderantziz, azkar mugitzeko lur orotako ibilgailua eta auto-gidaria alokatu daitezke (14-20 €). Guk horrela egin genuen Semerutik bueltan Ranu Panira jaitsi ondoren.

NOIZ JOAN

Urteko edozein sasoi tan joan daitekeen arren, sasoirik lehorrena da egokiena, alegia maiatzetik urrira. Egunduek gehienak eguzkitsuak dira eta Semeru gailurrera heltzeko aukerak handiagoak dira. Guk abuztuan egin genuen eta eguzkia izan genuen egunero, bai ibilaldiaren hiru egun horietan, bai aurreko eta bain ondorengo asteetan. Egunduek tenperaturak oso atseginak dira. Semeru gailurra da lekurik hotzena (0°C-ren bueltan) eta haizetsuena, 3000 metrotik gora baitago.

NON JAN ETA LO EGIN

Cemoro Lawang herrian hotel eskaintza zabala dago. Familiak alokatzen dituzten gelak, Homestay (10-18 €), Hotelak (25-28 €) baino merkeagoak dira. Kanpalekua ere badago. Ranu Pani herrian aldiz aukerak gutxiago dira. Semerura igotzeko kanpadenda eramatea gomendatzen da, Kalimati edo Arcopodon gaua pasatzeko, gailurrari eraso aurretik. Ibilaldirako janaria Cemoro Lawangen eta Ranu Panin erosi daitezke, motxilako pisua arinduz. Gidariak eta zamaketaiak bai Cemoro Lawangen bai Ranu Panin kontratatu daitezke. Hotelean galdetzearekin nahikoa da. Gidari baten soldata 15-25 €/egun izan daiteke; zamaketa batena, horren erdia gutxi gorabehera.

OSASUN KONTUAK

Javan paludismoagatik arriskua txikia da, batez ere ibilaldi honen inguruan, garaiera handia delako. Aintzat hartu beharrekokoak dira: sukar horia, sukar tifoidea, A eta B hepatitis, tetanos-difteria eta japoniar entzefalitis. Egokiena Atzerri-rako Txertaketa Zentro batean galdetzea da. Ura edateko ur bihurtu behar da beti.

BAIMENAK

Bromo-Tengger-Semeru Parke Nazionalen sartzeko ordainsaria asko garestitu da atzeritarrentzat 2014az geroztik. Datu ofizialen arabera, aste barruan 18 € eta asteburu eta jai egunetan 25-28 €. Parke Nazionalaren bulegoak kale nagusian daude Lava Café hotelaren ondoan. Semeru igotzeagatik ere zerga ordaindu behar da (15€); pasaportearen fotokopia eta osasun agiria ere eskatu ohi dute. Bulegoa Ranu Pani herrialdearen kanpo aldean dago, Semerurako bidean.

ESPEDIZIO KIDEAK

Belen Santiago, Mikel Barriuso, Iratxe Garay, Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal.

